



UDALBILTZAKO PARTZUERGOAREN APARTEKO KONTSEILU NAGUSIA

2019ko URRIAREN 18an EGINDAKO BILERAREN AKTA

LABURPENA

- 1.- Aurreko Kontseilu Nagusiaren akta onartu da bilkura honen lehenengo puntuan.
- 2.- Partzuergoaren egoera eta funtzionamenduaren berri eman da.
- 3.- Eraldatze plana.
- 4.- Proiektuen laburpena egin da laugarren puntuan.
- 5.- Batzorde Eragilearen kide berriak izendatu dira bosgarren puntuan.
- 6.- Herriko etxeen auziaren berri eman da seigarren puntuan.
- 7.- Irudi berria aurkeztu da zazpigarren puntuan.
- 8.- Galderak eta eskaerak.



UDALBILTZA PARTZUERGOAREN APARTEKO KONTSEILU **NAGUSIAREN AKTA**

Oiartzungo Udalaren Liburutegian, bi mila eta hemeretziro urriaren 18an, arratsaldeko 18:04an bildu dira bigarren deialdian azpian zerrendatuko diren udalerrietako ordezkariak.

Bertaratutako Udalak:

	UDALA
1	Aizarnazabal
2	Alegia
3	Altzo
4	Antzuola
5	Arakaldo
6	Arbizu
7	Asteasu
8	Astigarraga
9	Ataun
10	Basaburua
11	Bera
12	Ea



UDALBILTZA
PARTZUERGOA

13	Errigoiti
14	Etxarri-Aranatz
15	Goizueta
16	Hernani
17	Itsasondo
18	Lakuntza
19	Legutio
20	Oiartzun
21	Usurbil
22	Zaldibia
23	Zestoa

Ez dira bertaratu honako udalerrri hauek: Aduna, Ajangiz, Amoroto, Anoeta, Araitz, Aramaio, Arantza, Areso, Arratzu, Artea, Atxondo, Aulesti, Bakaiku, Barrundia, Berastegi, Berriatua, Berrobi, Dima, Elduain, Etxalar, Etxauri, Ezkio, Gatika, Gaztelu, Getaria, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Iturmendi, Larrabetzu, Leaburu-Txarama, Leitza, Lezo, Lizartza, Mañaria, Markina- Xemein, Meñaka, Mendaro, Munitibar, Muxika, Olazti, Ondarroa, Oñati, Orendain, Orexa, Otxandio, Segura, Uharte-Arakil, Urdiain, Zerain, Ziordia, Ziortza-Bolibar, Zizurkil, Zubieta.

Jabier Asurmendi Udalbiltza Partzuergoaren jarduneko lehendakari eta zuzendari jaunak zuzendu du bilkura.



Udalbiltzako teknikari hauek hitzarekin baina botoa emateko eskubiderik gabe parte hartu dute: Ainara Larrañaga andereak eta Arkaitz Almortza zein Inhar Iraizotz jaunek.

Era berean, parte hartu du Patxi Lapatza-Gortazarrek Udalbiltza Partzuergoko idazkari kontu-hartzaile moduan.

Quoruma dagoela ziurtatzean, hasiera eman zaio bilerari, honako edukiak landuz:

LEHENA.- Aurreko akten onarpena:

Jabier Asurmendi jarduneko lehendakariak egin du puntu honen azalpena.

Zuzenketa edo ekarpenik proposatu ez denez, aurreko Kontseilu Nagusiaren bilkuraren akta onetsi da.

BIGARRENA.- Partzuergoaren egoera eta funtzionamenduaren berri ematea.

Idazkari kontu-hartzaileak egin du puntu honen hasierako azalpena, Erakundearen bilakaera laburbilduz 2002tik hona. Partzuergoaren marko juridikoa azaldu du, mugaz gaindiko oso konsortzio gutxi daudela eta egitura juridiko oso malgua dela azpimarratuz. Azkenik Kontseilu Nagusiaren eta Batzorde Eragilearen araubide juridikoaren berri eman zaie hautetsiei, Udalbiltza Partzuergoaren Estatutuen V tituluari jarraiki.

Ez da ekarpenik ezta zalantzarik egon hautetsien partetik.

HIRUGARRENA.- Eraldatze plana.



UDALBILTZA
PARTZUERGOA

Lehendakari jaunak puntu honen berri eman die Partzuergoko kideei. Izan ere, legealdi honetan Udalbiltzako jarduera egokitu beharko da garai eta erronka berriei begira. Horretarako denon parte hartzeaz kontatu beharko da, eta baliteke Udalbiltzaren funtzionamoldeak, egiturak eta proiektuak moldatu behar izatea.



Proiektu askorekin orain arteko bidetik segituko da, eta beste batzuk testuinguruko eskaera sozialekin batera koordinatu beharko dira berdintasuna, energia-subiranotasuna, elikadura-soberanotasuna, lurraldeen arteko oreka eta garapen jasangarria...

Partzuergoko partaideen aldetik ez da ekarpenik egin.

LAUGARRENA.- Proiektuen laburpena.

Arantza Larrañaga andreak puntu honen azalpena egin du, proiektuz proiektu:

- 1) Lurgida, Euskal Herriko gida turistikoa: gauzatzeko tenorean dagoen proiektu honek turismo jasangarria, ondare inmateriala eta horiekin lotutako ibilbideak zehaztuko ditu 2020an. Ahalegin berezia egingo da turismoa lehen sektorearekin uztartzeko, era berritzailea eta jasangarrian. Azpimarratu da horren inguruko zailtasunak, Euskal Herriko orografia malkartsua eta baserritarren izaera aintzat hartuta. Orain arteko asmoa baliabide teknologikoak eta edukiak lantzea izan da, eta edukien artean, ondare inmaterialari eta etxaldeeiei eman zaie garrantzia berezia.
- 2) Hauspotu, herriak bizituz: proiektu honen bitartez gainditu beharreko zailtasunak dira despopulatzea, eskualdeen arteko desoreka eta zailtasunak zerbitzuen irisgarritasunean. Koop 57, OlatuKoop eta Euskal Herriko Garapen eta Kohesio fondoarekin batera landuko da babes finantzarioa, bidelaguntza eta mintegiak ekonomia sozial eta eraldatzailea bultzatuko duren proiektuei.



UDALBILTZA
PARTZUERGOA

- 3) Ikerbiltza: Euskal Herriko unibertsitateetan sorturiko ezagutza eta jakintza herrien garapenerako mesedetan. Energia burujabetza sustatuko da Aiaraldean eta Aezkoan, tokiko baliabideak eta beharrak aztertuz. Gizarte ekonomia eraldatzailea bultzatuko da proiektu honekin, errealitatearen argazkia eginez. Azkenik, elikadura-subiranotasunaren alde egingo da proiektu honen bidez honako eskualde hauetan: Leitza-Larraunen parte hartzeko prozesu baten bidez, Oiartzualdean ekoizleak indartuz, Sakanan lur komunalen azterketa baten bitartez, Lea-Artibain tokiko produktuen lekua bertako merkataritzan bultzatuz, Busturialdean ekoizleen bideragarritasuna aztertuz. Honetaz gain, ikerketa orokorra egingo da Euskal Herriaren kohesiorako egin diren lanketak aztertuz.
- 4) Hartu eman, Euskal Herriko esperientzien bankua: proiektu hau da Euskal Herriko garapena sustatzen duten esperientzien bilduma. Gaiak honako hauek dira: energia burujabetza, elikadura burujabetza, etxebizitza eta hirigintza, lurra lantzeko erraztasuna, ekonomia soziala eta eraldatzailea, euskara, politika feministak eta parte hartzea.
- 5) Mintegiak: Euskal Herriko Udaletan energia burujabetza, elikadura burujabetza, ekonomia sozial eraldatzailearen gaitan sakondu eta ekimenak bultzatzeko mintegiak egingo dira. Hiru batzorde daude: energia burujabetza, elikadura burujabetza eta ekonomia sozial eta eraldatzailea.
- 6) Hurbiltzen: programa honek datza Euskal Herriaren kohesiorako senidetzean. Honen bitartez sustatuko dira eskualde ezberdinen arteko elkar ezagutza eta harremanak,



UDALBILTZA
PARTZUERGOA

elkarlana eta muga administratiboak gainditzea. Nafarroako lau uharteak proiektua honetan kokatzen da. Lau udalerririk lotzen dituen ibilbidea da eta kultura, hizkuntza, kirola eta barne kohesioa sustatuz. Ibilbidearen gida laster egongo da prest.

Hitzen tartea zabalduz, ez da ekarpenik egon hautetsien partetik.

BOSGARRENA.- Batzorde Eragilearen kide berriak izendatzea.

Jarduneko lehendakari jaunak adierazi du Batzorde Eragileko kide berriak izendatu behar dituela Kontseilu Nagusi honek. Era berean, adierazi du beste talde edo pertsona ezberdinak proposatu daitezkeela, egin den proposamenarekin bat ez datozenak.

Bozkaketa egin eta gero, pertsona hauek izendatu dira Batzorde Eragileko kide, aho batez:

Pili Legarra Kortajarena (Asteasu).

Aitor Elexpuru Egaña (Bera).

Koro Etxebarria Tolosa (Hernani).

Itziar Amezaga Epalza (Errigoiti).

SEIGARRENA.- Herriko etxeen auziaren berri eman da.

Herriko Etxeak Partzuergoan sartzeko prozedura konplexua da, eta Uztaritzek jaso du Prefetaren debekua Udalbiltza Partzuergoan sartzeko erabakiaren aurka. Lehendakariak azaldu du kontrako



erabakia espero genuela baina argudio juridiko bortitzak aintzat hartuta. Prefetaren debekuak, aldiz, argudio erabat politikoak erabili ditu. Salaketa publikoa lehenetsi ordez, erabakiaren alderdi juridikoak aztertuko dira bestelako erabakia lortzen saiatzeko, eta herriko etxeek behingoz parte hartu ahal izateko Partzuergoan Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafar Foru Komunitateko udalerriekin parez pare. Ezezko erantzun hau izan daiteke beste ezezko batzuen aurrekaria.

Ez da ekarpenik egin hautetsien partetik.

ZAZPIGARRENA.- Irudi berria aurkeztea.

Irudi berriaren aurkezpena egin du lehendakariak. Armarria xinpletzea eta aldatzea da helburu, logoa sinpleago eta modernoago izan dadin. Kolore korporatiboei gorria eta letra tipoak gehitu zaizkio, eta horrela mantenduko da pertsonalitatea modernizatuta.

ZORTZIGARRENA.- Galderak eta eskaerak.

Lehendakariak azpimarratu du 2019ko azaroaren 16an egingo den batzar orokorraren garrantzia. Gonbidapena soilik bidaliko zaie atxikimendua eman dutenei eta momentuz 1400 hautetsitik 900k atxikimendua eman dute.

Eta deialdi honen helburua bete delarik, lehendakariak bertaratutakoei eskerrak emanez batzarra amaitutzat eman du, arratsaldeko 18:46an direnean, neuk idazkari kontu-hartzaile moduan ziurtatzen dudalarik.



IDAZKARIAK

Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa